

BAKEAREM GUTUNA ONUri bidalita

Lagunok:

Pertsona gehienek bihotz bihotzetik, bakea nahi dute. Hala eta guztiz ere, bakearen haustura tragiko eta etengabeak nabariak dira munduko herri desberdinen artean. Ez da zaila bakea lortzeko irtenbide egokiak bilatzea. Eragozpen ugari dago.

Gutun honen helburua oztopo horiek gainditzeko lagungarri izango diren printzipioak ezartzea izango da eta, aldi berean, bakea eraikitzeke oinarri sendoak eskaintzea.

I. Gaur egun bizi garenok ez dugu Historian izandako gaitzen errurik, gertatu zirenean gu bertan ez geundelako, hain zuzen ere.

II. Historian gertatutakoaren erantzukizunik ez badugu, zergatik elikatu behar dugu elkarren arteko erresumina?

III. Ezaba ditzagun zentzugabeko erresumin hauek. Zergatik ez gara adiskidetzen eta elkarrekin gure semealabentzat zein guretzat elkartasunezko mundu bat eraikitzen?

IV. Ezin dugu Historia atzera eraman, ez eta aldatu ere. Eta era berean, Historia desberdina izan balitz -hobea edo okerragoa- etorkizuna desberdina izan zitekeela ikus dezakegu.

Denboran zehar bestelako topaketa, bestelako lotuneak izan zitezkeen; eta gure ordez, beste pertsona batzuk jaio. Bertan izateko zoriona dugunok ez ginateke hemen egongo. Honek ez du esan nahi gure arbasoek sortarazitako gaitzak zorigaitzoak izango ez lirakeenik. Zentsuratu eta gaitzetsi egiten ditugu eta ez ditugu inola ere errepikatu nahi.

V. Gizakiek, gizaki izateagatik, funtsezko erlazio bat dugu: esistentzian anai-arrebak izatea. Hemen ez bagina, ez ginateke inoren anai-arrebak izango. Esistentziak ematen digun sendetasun nagusi honek gizartearekiko elkartasun handiagoa izatea ahalbidetuko digu.

VI. Gizarte sendo eta baketsua eraikitzeke, Historiaren emaitza izan ziren bidezkoetat jotako beste egitura zaharren gainean egitura egoki eta berriak eraikitzea arriskutsua izango da. Egitura berriak unitate naturalen gainean eraikiko dira sendotasun handiagoz: herrialde, eskualde, etnia, etab. Kontu handia izan beharko da hauek bere baitan itxi ez daitezen, honek, ia beti, mota guztietako gatazkak eta gerra ere sortarazten dituelako.

VII. Gizakia izaki librea da, adimentsua, eta maitatzeko ahalmena du. Amodioa ezin zaio beste bati inposatu eta ezin da inor maitatzera behartu. Norbaiti askatasuna mugatzen diogun bakoitzean, gu maitatzea eragozten diogu. Ondorioz, dimentsio soziala duen banakoen jatorrizko askatasuna defendatzea, ahalbidetzea eta bermatzea, pertsonen arteko adiskidetasunezko maitasuna ahalbidetzea da eta horrela bakea eraikitzeke ahalmena izatea.

VIII. Erakunde askok belaunaldietan zehar diraute. Orain arte iraun duten erakundeen legezko ordezkariak ez dira, noski, iraganean gertatutakoaren erantzule, beraiek bertan ez zirelako. Halere, bidezko jotzen denean, Historian erakunde horietan izan diren legezko ordezkariak egindako gaitzen eta injustziengatik barkamena eskatu behar dute publikoki eta ahal duten neurrian izandako kalteak ordaindu.

IX. Gurasoek beste batzuei bizitza eman izanaren erantzukizuna dute. Horrenbestez, gizartearen laguntzarekin bere seme-alabak hil arte giza duintasunez bizitzeko beharrezko diren baliabideak eman behar dizkiete, haiek bizitzeko aukera eskatu ez dutelako. Eta gazteek bere gurasoen, familiaren eta gizartearen eskutik motibazioa jasotzeko eskubidea dute zientzietan ikerlanak egiteko, teknika hobetzeko eta bere lanarekin mundu hau hobeto antolatzen laguntzeko.

Argi dago bake globala ezin izango dela eraiki gizartearen baitan eta familien baitan ere bertako kideen erdia baino gehiago osatzen dutenen aurkako mesprezuak irauten duen bitartean: emakumeak, haurrak, adinekoak eta talde marjinatuak. Aitzitik, bakea lortuko da bere eskubide eta duintasuna guztiz onartu eta errespetatzen direnean.

X. Gaur egun herrialde gehienek, beti ere, besteen eskubideak errespetatuz, guztiok askatasunean pentsatzeko, adierazteko eta elkartzeko eskubidea onartzen dute. Baina,aldi berean, gizaki bakoitzak mundu honetan pentsatzen duen moduari jarraiki bizitzeko eskubidea du.

Ondorioz, demokraziek, pertsona oro bere kontzientziaren arabera bizi dadin defendatzeko eta ahalbidetzeko aurrerapausu kualitatiboa eman behar dute, noski, inoren askatasunaren aurka joan gabe eta besteei edo bere buruari kalterik egin gabe.

Erresuminik gabe, askatasunetik eta adiskidetasunetik, bakea eraiki dezakegu.

Eskerrik asko lagunok...

Post-data:

Agintarien lana da, bere garaikideen hobe beharrez, indarrak batzea; izan ere, existitu existitzen dira, eta bizitza duintasunez bizitzeko eskubidea dute, gaurkoen ondasunek biharkoen ekologi oreka hondatu barik.

Nazio bat, bere politikoei esker, ondo baino hobeto badoa, bizikideen arteko harremanak hobe eta atseginagoak izango dira eta seme-alabak jaioko dira. Berauek poztuko dira herria garatuz joan dela ikusita, eta honi esker hain zuzen jaio ziren hauek, beren nagusien topaketetarako baldintza ezin hobeak zeudelako. Beste nazio batzuk, berriz, hain ondo gobernatuta ez badaude, bertakoen arteko harremanak zailxeagoak izango dira, eta hartara beraiengandik jaiotakoak ez dira nazio hobe bateko biztanleenenak bezalakoak. Bestelako egoera honen pean jaio direnek izan dezakete poza, nahiz eta beren herrietan egoera hain ona ez den, baina agian, eta gauzak bestela izanda, ez ziren jaioko. Jakina, hiritar hauek, heldutxoak direnean, ahalegin berezi bat egin beharko dute gauzak hobetze aldera.

Hortaz, gauza jakina da edozein herritako biharko biztanleak, direnak direla ere, existitzeaz poztuko direla -existitzeagatik pozik egotekotan-, hain zuzen gaurko agintariek -hobeto ala txartoago- egin izanari esker bizi baitira. Beraz, garaikideon ondasuna agintarien helmugarik garrantzitsuena izan behar da.